

DONOSTIA BERRIA?

Txomin-Enea, erdi egina dagoen eta estropezuka eraikitzen ari den auzoa

Auzoa beste bat da. Ni oso pozik nago emaitzarekin, baina ez ordea gauzak nola egin dituzten ikusi ondoren. Oso narrasak izan dira, eta arazo bat izan dugunean ez dizute kasu *putarik* egiten, gazteek esango luketen bezala». Emakume heldu bat farmaziatik irten da, eta bere laguna, auzoko beste bizilagun bat, auzoaren inguruan hizketan hasi da modu sutsuman.

Txomin-Enea Loiolaren ondoko gune bat zenean –Donostian inori edo ia inori interesatzen ez zitzaion gehigarri soil bat– hemen ere herritarrak bizi ziren. Orain Txomin beste

mundu bat da. Erdi egina dagoena eta estropezuka eraikitzen ari dena. Sarrerako birlilgunean Txomin Etxe txikiko arkuak eta zutabeak jarri dituzte. Gizon bat landareak apaintzen ari da. Handik

 **JENDARTEA** / Jon Pagola Galardi

Donostia eraldatu behar zuen gunean zarata, hautsa eta bete gabeko promesak daude. Atzerapenak eta narraskeriak maila berean pilatzen dira Txomin-Enean eta bizilagunak nekatuta eta aspertuta daude. Lehen hiriaren bazterrean eta baztertuta; orain auzo berria estropezuka nola altxatzen ari den begira.

Lerro hauen azpian eta alboko orrialdean, Txomin-Enea. Betidanik hor zeuden eraikinek eta berriek osatzen dute Donostiako auzoa. Maialen ANDRES | FOKU

metro batzuetara udaletxeko langile bat hodi bat sartzen ari da estoldan eta kamioiaren motorra entzuten da. Bi emakume pentsiodun hauen bizitza erabat aldatu da, eta zaila da ondorioztatzea erabat ho-

berako izan dela. Esker oneko hitzak dituzte, eta ondoren errieta egiten diete eraikuntza enpresako arduradunei. Onespenean keinu bakoitzak ñabardura bat du atzetik, kexa bat. Bai eta ez. Buklea etengabe aktibatzen da.

Felisa Martin Bravo kalea zulatuta dago. Langile batzuk, garabi baten laguntzaz, espaloia errematatzen saiatzen dira, eta batek galdetzen dio bere buruari zenbat denbora behar duen lana amaitzeko. Osasun zentrotik jendea irteten da. Eraikin apala da. Anbulantzia batetik erizain irribarretsu bat agertzen da, gurpil-aulki bat gidatzen ari da. Pazientearen zain geratzen da, eta hainbat lankideren lagun-




tzarekin iristen da gizona. Ahotsa goratu behar dute ondokoarekin elkar ulertzeko. Soinu iskanbilatsu eta gogai-karria leku honetaz jabetzen da, bere garaian «hiriko itsusiena» bezala bataiatu zen Paskualdegiko biribilgunetik, triangelu formako hesitutako lursailera, non zikinkeria, saskaraitsu eta lodiak pilatzen diren. Erdi abandonatutako zati horretan anbulatorio elegante bat zegoen martxan, baina antza denez proiektua bertan behera geratu da.

«Plaza bat egingo dute», dio farmaziatik ateratzen den emakumeak. «Egingo dutela diote, ez da gauza bera». «Nola diozu?». «Bi urteren ostean, ez da kale garbitzailerik hemendik pasatu». «Hala da». Bizilagunen arteko elkarriketak oso argigarriak dira.

BIZITZA OSOA TXOMINEN

Antzieta inguruan bizi da Igor Martin. Bizitza osoa Txominen pasatu du, harro dago bere jatorriaz. «Hasieran 600 bizilagun ginen, baina legioa zen hura. Lehen uholdeekin errepidea moztu genuen, eta gaitzatzeko auzoetan haluzinatu egiten zuten. Esaten ziguten: oso ondo egiten duzue, segi horrela!». Loiola antipodetan dago Igorrentzat. Haren ikuspuntutik munduko punta baten bazterrean dagoela dirudi. «Bitxia da, gu Loiolako kultur etxearen menpe gaude, baina gero haiek gure osasun zentroaren menpe daude», bota du gogoeta. Anbulatorioa txiki geratu zaie, eta langile gehiago kontratatu dituzten arren eremu horretako biztanleriaren hazkundearekin beste bat eraikitzea «premiatzkoa» dela azpimarratu du. «Kontuan izan Txomineko jendea ez ezik, Martutene, Loiola eta Erribera-



ko zati bati zerbitzua emango liokeela. Ez da jolasa. Orain esan dute kuartelak eraitsi eta eremu osoa urbanizatzeko anbulatorio bat egin nahi dutela. Gutxienez hamar urteko epeaz ari gara», azaldu du Lanberrri Txomin Eneko auzo elkarte historikoko kide den herritarrak.

ZARATA DA BIZILAGUNA

Igorren etxea bi zulo handiren artean sartuta dago: eraikin blokeak, auzo berriaren lehenengo fasearen gainerakoekin batera altxatu behar ziren. Berandu doaz. Zaratarekin bizitzea tokatzen zaio.

Atzerapenez gain, prozesu osoaren deskribapen garrantza egin du Martinek. «Obran arazo asko eta praxi txarra izan dira nagusi, diktadura mailara iristeraino. Despota ziren arkitekto talde batekin topo egin dugu. Gure etxeetan fatxada berritu behar zen, energetikoki oso ona zena, teitlatua egin zuten, etab. Gastu horiek gure kontura egin ditugu. Baina gaitzatuak izan dira. Hemen gauza bat argi utzi behar da: Giroa-k, udalak kontratatu duen enpresak, legez kanpoko %10eko komisioak kobratzen zituen. Nire aitari terrorista deitu diote beste enpresa batzuen aurrekontuak zeramatzalako eta gauzak horrela egiten ez direla salatu duelako. Gehiago esango dizut. Obrarekin arazo larri bat dagoenean deitu eta esaten dizute ezin dutela ezer egin, astebete itxaron behar dugula. Zer zerbitzu mota da hau? Nik ezin dut itxaron 24 orduz ur beroa edukitzea arte».

Artelekuko plaza izan da Udalak lepotik zintzilikatu duen domina. Pasa den abenduan, «Txomin-Enea auzo berriaren bihotza izango den»



plaza gisa definitu zuten eta «urtebete prest» izango dela adierazi zuen Hiri Proiektuen zinegotziak, PSEko Duñike Agirrezabalagak. Esan zuenez, «obrak 2021eko uda inguruan hasiko dira, eta aurreikusitako bost hilabete eta erdiko obren ondoren, plaza prest egongo da», ideia lehia-keta eta partaidetza prozesu baten ostean. Zehazki plaza hainbat eremutan banatuta egongo da: lurrean ur zurrus-tak izango ditu, haurrentzako jolasgunea egongo da, zuhaiz-tiak, kirol kantxak, adinekoen-tzako kirol eremu bat...

«Erakusketa bat egin zen Loiolako kultur etxean lehia-ketara aurkeztu ziren 14 proiektuekin», gogora ekarri du Martinek. «Guztien artean bozkatu genuen parte-hartze prozesu batean. Oso ekimen polita zirudien baina gure us-tez, dena zuten alde aurretik aukeratuta».

Lanberri elkarteko kidea da era berean Jesus Alcalde Txuss. Salatu duenez, Cristina Iglesia- sek Santa Klara uhartean duen proiektura «desbideratu»

omen dute Arteleku plazaren aurrekontua. «Ezetz esango dute, baina gezurretan ari di-ra», nabarmendu du Txussek. «Zenbakiak begiratzten hasten bazara, ikusiko duzu bi aurre-kontu partida berdina dardela. Diru kopuru hori desbidera daiteke udal plenora eraman gabe. Ezin zaitezke udal pleno-ra joan eta Santa Klarako es-kulturarentzat beste milioi eta erdi gehiago eskatu. Ez dizute utziko. Baina horrela egiten baduzu ez da nabaritutako, eta uhartearen kostua sei milioi eurokoa izango da obra ama-itzen duten arte».

KATU BAT HILDA DAGO

Auzora joan aurretik borroka berebetean murgilduta zeuden Matxalen Lonbera eta Urko Otxoa. El Rincon izeneko ta-bernan eserita daude eta jolas-tokiko umeen ahotsak entzu-ten dira. Betiko gune urbanoetan nagusi diren den-da txiki eta bakarrak, familia-rrak, ez dira ikusten. Udaberri-ko belar freskoaren usain gozoaren arrastorik ez dago. Alboko parterrean askotariko

Ezkerrean Matxalen Lonbera eta eskuinean, Jesus Alcalde. Txomin-Eneko bizilagunak dira biak eta auzo elkarte desberdinetan dabil-tza lanean, auzotarren ongizatearen alde. Maialen ANDRES | FOKU

2019an bizilagun talde batek protestak egin zituen Amenabar eraikuntza enpresaren kontra. Etxeak ordainduta eta lanak bukatuta zeuden arren, etxeetara sartu ezinik egon ziren

«Hilabeteak pasatzen joan ziren eta ezin ginen sartu erosi genituen etxeetan. Kasu asko egon ziren, non jendeak alokairua utzi eta gurasoen etxera joan behar izan zuen bizitzera»

zabor pilotatxoak pilatzen di-ra. Letra txikiari ez diete haiek erreparatzen: urratsak parte-katzen dituzten bi lagun eta bizilagun hauen erronkak handiak dira. Lonberak 47 urte ditu, Otxoak, 41. Txomin-Eneko etxebizitzak esleitzeko prozedura hasi zenean, atzera-tzen joan zen, behin eta berriz, donostiarren artean hainbeste ikusmin sortu zuen proiektua.

Mobilizazioak 2019ko udan hasi ziren. Elkar ezagutu zu-ten, eta berehala ekin zioten elkarlanari. Abuztuan hainbat bizilagunek protesta egin zu-ten Amenabar eraikuntza en-presak Askatasunaren hiribi-dean duen egoitzan. 150 bizilagun inguruk beren etxe-

bizitza ordaindu zuten, obra bukatuta zegoen, baina ez zie-ten sartzeko baimenik ema-ten. «Amenabar hamaika azpi-keriatan sartuta dabil eta dirudienez Donostiako Udala-ri abal bat ordaindu behar zion alde aurretik. Gauza da ez zutela dirurik edo ez zi-tzaia ordaintzea interesa-tzen, eta udaletxearen eta Amenabarren artean tirabira egon zen. Hilabeteak pasatzen joan ziren eta ezin ginen sartu erosi genituen etxeetan. Kasu asko egon ziren, non jendeak alokairua utzi eta gurasoen etxera joan behar izan zuen bizitzera», azaldu du Otxoak. «Etxeetan sartu ginenean des-perfektu asko zeuden. Gogora-

tzen duzu?». «Pasada bat izan zen. Eta oraindik badaude», erantzun dio Lonberak.

Une oro arazoak sortzen dituen eskema makabro batean bahituta sentitzen dira. «Erbateko prekaritatea dago», nabarmendu du Otxoak, eta azpikontratazio kate luze honetan bizilagunak oso kalte-tuak ateratzen direla dio. Eraikinetako intzidentzia ezberdinei erantzuteko garaian, ez dakite nora jo behar duten. «Langileak baldintza txarretan eta gaizki ordainduta daude eta horrek arazoak sortzen ditu. Gure etxeetan jaten ditugu problemak. Lehengoan langile portugeseekin hitz egiten egon nintzen. Portugesak! Esan zidaten bi astez kontratatzen dituztela eta auskalo non lo egiten duten».

Lonberak bide beretik jarraitu du, eta «milaka intzidentzia» izan dituztela salatu du. «Gu sartu baino lehen etxea inundatu zen, iturginak erradiadoreak itxi ez zituelako. Korrika egiten dituzte gauzak. Ateak izorratu ziren eta oraindik horrela ditugu, aldatu gabe. Urte eta piko daramagu enpresari deitzen eta ez digute erantzunik eman. Ez dakigu zer demontre pasatzen den. Australiara bizitzera joan ote da?».

«Eskema horrekin arazoa sistemikoa da» eta azpiegitura horretatik ateratzea oso zaila da, Otxoaren ustetan. «Gremioetan baldintza txarrean lan egiten duten bitartean, kristoren abokatu onak dituzte eta salmenta osteko zerbitzuan hitz egiten dakien jendea dute, legea oso ondo ezagutzen duena, eta diskurtsoak desmuntatzeko gai direnak haiei interesatzen zaien bidetik joateko. Dirua egiteko makina bat da enpresa hau.

Eta ezin dituzu inoiz harrapatu», zehaztu du.

Adibide xume bezain esanguratsu bat: trastelekuetan %90eko hezetasuna dutela jakinarazi zutenean «oso ondo jantzita zegoen» gizon bat joan zitzaien eta legea eskutik helduta haien alde ezin zuela ezer egin esan zien. Segituan alde egin zuen.

Egoera larria da. Eta ez da batere eroso. Jabekideen erkidegoak arkitekto bat kontratatu du berriki, etxebizitzetako akats eta «gabeziak» zeintzuk diren aztertzeko. 2020. urtearen bukaeran arratoi mordoa agertu zen etxeetan. «Oso mediatikoa izan zen hura, baina saguak ziren, horrelakoak», diote, bi eskuak zabaltzen hobeto irudikatzeko. Hildako katu bat egon da galtzadan bola-

da luze batean. Ez dakite zenbat denbora pasatu zuen errepidean udal garbitzaile batek erretiratu zuen arte. Hilabete bat? Bi hilabete?

El Rincon tabernan zarata da soinu banda. Hemen ere bai. Txomineneko edozein lekutan bezala.

«Inoiz damutu al zarete pisua erosteaz?», galdera zuzena

bizilagunei. «Batzueta bai, suposatu duen esfortzu eta lanarengatik batik bat. Gogoratzten duzu nola ibili ginen hasieran?», erantzun du Lonberak. «Putada handiena zera da, ilusio handiarekin hartzen duzun etapa berri bat igarotzen duzula arazoak behin eta berriz konpontzen», esanez bukatu du Otxoak.

Egoera larria da. Eta ez da batere eroso. Jabekideen erkidegoak arkitekto bat kontratatu du berriki, etxebizitzetako akats eta «gabeziak» zeintzuk diren aztertzeko

2020aren bukaeran arratoi mordoa agertu zen etxeetan. «Oso mediatikoa izan zen hura baina saguak ziren, izugarriak». Hildako katu bat egon da galtzadan bolada luze batean

